

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 164. alea - 2012ko ekaina



**Aitor Oñederra,
sorkuntzan murgilduta**



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behean . 20820 DEBA
943 029 186



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

Zugandik ZUGANA




Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazaatik



BURU - ZURI Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)



Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Erredakzio taldea

Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua

Banaketa arduraduna:
Juanma Oiartzabal

Inprimategia:
Euskalinpri

Tirada:
1.400 ale

Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



6

KOLABORAZIOA.

Goizane Aizpurua,
"Weiji garaiak". 05.

KRONIKA. XXVI.
Antzerki Astea. 08

ALBISTEAK.

Mikel Markezen eta
Pako Aristiren liburua
(Tene Mujika),
Polentzi Markiegiren
fusilamenduaren
urtemuga.

09-10.

**BERRIKETAN
GAZTEA.** Tapoi

bilketa, eskolaz

kanpoko ekintzak...

11-14.

LABURRAK.

Debako Surf Eskola,
"Ikastetxeak bertotan" ... 16-17.

ZERBITZUAK. 18.



9



17

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Eskerrik beroenak mintzalagunei!

Ikasturte osoan zehar mingaina gogoz astintzen aritu badira ere, mintzalagunek urte osoko dinamikari ere halaxe eman nahi izan diote amaiera, euskara modu natural eta informalean erabiliz, lagun artean.

Ekainaren 8an plaza zaharrea elkartu, poteo txiki bat egin eta afaritxo bat egin zuten Mintzalaguna egitasmoa osatzen duten taldeetako kideek.

Elkarren berri izateko aukera aprobe-txatu zuten, eta ikasturtean izandako bizipenak oroitzeko tarterik ere izan zuten, umore onean beti ere.

Zuhatza elkarteak eskerrak eman nahi dizkie mintzalagun guztiei: euskaraz jarriotasunez hitz egiten ikastera hurbildutakoei, eta haiekin batera aritu diren euskaldun boluntarioei. Uda partean etenaldia egin, eta ea irailetik aurrera berriz ere egitasmoari jarraipena ematen diogun guztion artean!

Zuhatza Euskara Elkartea

Hondartza kaletik abiadura handian pasatzen dira autoak

Hondartza kalearen bukaeran zebrabi-dea dago, baina autoak abiadura handian pasatzen dira bertatik, nahiz herri-ara jaisten nahiz herritik ateratzen.

Zera galdetu nahiko nuke: ez ote da posible abiadura murrizteko oztopo horietako bat, semaforoa edo beste zerbait, bertan jartzea?

Arantza Arrieta

Zuhatza

UDARA KULTURAZ BLAI

KULTURAZ BLAI, EUSKARAZ BLAI, HAUR ETA GAZTE HURBILDU ALAI!!




animaciak
"TXOLO HEGALARI TOITLO"
UZTAILAK 3, 19.00ETAN, ZUMARDIAN



ZIRKUN ZIRKO
"TINA"
UZTAILAK 10, 19.00ETAN, ZUMARDIAN



BEGIRA
"DISKO TXIKI"
UZTAILAK 17, 19.00ETAN, ZUMARDIAN



GOIZANE AIZPURUA

“WEIJI” GARAIAK

Inguruan sormenari lotuta dagoen zenbait jende izan dut nire bizitzan zehar. Bai nire ikasketei lotua dagoen jendea bai nire ibilbidean ezagutu IZAN dudan zenbait pertsona. Barruak eskatzen duen zerbait da. Atera egin behar dena edo bere kasa irteteko gogoz dagoena.

Garairik okerrenek ere ezin izan dute sormenarekin. Neurri txikiago batean, ezkutuan, isilean oihuka atera izan dira jendearen barrunbeetatik. Adierazi nahi dena izaten omen da barrutik jaiotzen dena, edo salatu nahi dena. Hamarkada ezberdinek, munduko zoko eta egoera desberdinen ondorio izan direnak. Inurriak bezala egunez egun lanean eta munduaren ikuspuntu berekoia eta partikularra adieraziaz. Agian egoera eskasak edo garai gogorrik eta gordinenek sortu dituzte ondorengo sormenaren sumendien eztrandak.

Azkenaldian laburmetrai batean ibili izan da lagun bat. Atera beharra zeukan, berak dioen bezala, “erditu”. Hala da, zerbait sortzean barrutik irteten den zerbaitez askatzen da sortzailea eta

munduratzen du krazio berria ikuslearen burmuinean deskargatxo txiki bat emanaz, polo positiboa edo negatiboa ukituaz.

Krisia dela medio besteak beste Kulturak jaso izan duen gureizkadak ez dizkio hegoak moztu errekurtsu murriztuen bitartez lan egiten duen jendeari eta jostorratz nahiz hariz josi dituzte “ernalketa” baterako beharrezkoak diren elementu guztiak.

Txinatar hizkuntzako *Weiji* hitzak krisia esan nahi du eta bi ideogramaz dago osaturik: bata *Wei*.; arriskua eta beste *Ji*: aldaketa edo aukera.

Bigarren ideograma hau zenbait hitz txinatarretan aurkitu dezakegu *Ji yuán* (zorte ona) eta *Liáng ji* (aukera ona) besteak beste.

Argi dago ekialdea eta mendebaldea esku ezberdinen bitartez sortuak izan direla.

Unerik gogorrenetan, murrizketarik zorroztuenetan, debekuen garairik zapaltzaileenetan... sortzeko beharra izan duten guztiek, “erditzeko” ausardia izan duten denek nire alde-tik mirespenik handiena eta inbidiarik sanoena zor diet, *Ji yuán!*



“Oso zaila ikusten dut helduentzako animazioa hemen egitea; asko arriskatzea da”



Aitor Oñederra txikitik murgildu zen marrazkien munduan, eta komigile edo ilustratzaile bezala hamaika lan egin ditu harrezkero. Zinemagintzara ere hurbildu da, animazioaren bitartez, eta bere lanekin sari bat baino gehiago lortu du ibilbide honetan. Azkenaldian, bestefik, bere izena musika munduan ere entzun izan dugu, hainbat euskal talde ezagunen proiektio bisualak eta bideoklipak sortu izanagatik. Argi dago, beraz, Aitor ez dela geldirik egotekoa; sortzailetzat dauka bere burua, eta hori hainbat eremutan erakusten du.

Nondik dator kizua marrazteko zaletasuna?

Txikitatik gustatu zait marraztea eta komikiak egitea. Uste dut Deba osoak dakiela txikitik asko marrazten nuela... (*kar-kar!*) Beti nengoen marrazten; lagunak ere akordatu dira karpeta bat eramaten nuela, hondartzara adibidez, eta jendea futboleant ibiltzen zenean, ba ni marrazten egoten nintzen, jendez inguratuta nengoenean ere. Leku guztietan marrazten nuen, liburutegira ikastera joan, eta ni marrazten han ere. Gogoratzen naiz umetan egiten nituen komikietan kuadrilakoak agertzen zirela beti, denek nahi zuten bertan azaldu, eta komiki haiek arrakasta izan zuten, irakasleen artean banatzen zituzten... oroitzapen haiek badituzte, bai.

Arte ederretan lizentziatu zinen, ezta?

Bai. Bilbon hasi nituen ikasketak, eta Madrilen amaitu. Gero Madrilen bertan bi master egin nituen, 3D animazioa eta ondoren zine posproduktzioa. Efektu bereziak eta posproduktzioan espezializatu nintzen, bideoak editatzen eta abar. Ikasketak amaierako proiektu bat geneukan eta bideo bat egin nahi genuen. Eta hori zela-eta jarri nintzen kontaktuan Serrano Produktzioarekin -orduan Gari musikariaren produktora zenarekin-. Haiek eman zidaten Gariren kontaktua, eta hor hasi zen nire historia musikarekin. Horren aurretik, Bilbon ikasten nengela, Animazio irakasgairako beste proiektu bat aurkeztu behar genuen, eta orduan Split 77-ren bideoklipa egin nuen.

Hura izan zen nire lehenengo animazioa edo nire lehen kontaktua animazioarekin, eta nire lehenengo bideoa ere bai (2004an).

Marraztea gustuko zenuen txikitik. Eta marrazki bizidunak ikusteak, adibidez?

Bai, beti gustatu izan zaizkit. Son Gokurkin, adibidez, nik obsesio bat eduki nuen. Haren marrazkiak, eta pertsonai denenak, marrazten ibiltzen nintzen beti... eta lagunek ere “Son Goku” bezala etiketatu ninduten! (*kar-kar!*). Oraindik ere Son Gokun marrazkiak egin ditzaket, hainbeste aldiz egin nituenez ba... gogoratu egiten naiz. Nik beti pentsatzen nuen Son Goku mugitzen egin nahi nuela, nire marrazkiak mugitzea, baina oso urruti ikusten nuen hori; ezinezkoa ez, nahi nuelako eta banekielako iritsiko nintzela nire marrazkiak mugitzera... baina beti pentsatzen nuen ea niri nor erakutsiko ote zidan hori egiten. Eta unibertsitatara heldu nintzanean Bego Vicario irakaslea ezagutu nuen; pila bat lagundu dit eta oraindik ere laguntzen dit, eta berak erakutsi zidan marrazkiak mugitzen.

Animazioaren munduan egin dituzun lanetatik, zein nabarmenduko zenuke?

Niretzako nire lanik kuttunena lehenengoa da, Split 77 taldearen “Osaka” bideoklipa. Kolaborazio batzuk ere badauzkat eginak, zenbait laborimetrietan animazioa txertatuz, kredituak edo “motion graphics” deritzen animazio digitala. Eta gero laborimetrai propioak direnak, nireak, bi ditut: “Amaigabea” eta “Jostuna”, eta azken

horrek ere eman zidan halako jauzi bat egiteko aukera, Bartzelonako Per La Pau saria irabazteagatik. Bego Vicariokin egindako lanak dira bi horiek, sariez gain ohorezko matrikulak ere eman dizkidatenak.

Aipatutako bi laborimetrai horiekin zer sari lortu zenituen zehazki?

“Jostuna”-k, esan bezala, Bartzelonako Per La Pau fundazioaren film labor onenaren saria lortu zuen eta EHUko 0.7% Elkartasun Fondoak duen film laborren lehiaketa ere irabazi zuen. “Amaigabea”-k, berriz, Nontzefilmak sarietan Euskal Herrian egindako film laborrik onenari saria jaso zuen.

Zer animazio teknika duzu gustuko?

Gehien-gehien animazio tradizionala gustatzen zait niri, eskuz marrazten den hori. “Jostuna”-n eta “Amaigabea”-n animazio tradizionala dago, baina “Amaigabea”-n, adibidez, ikusten da ordurako Madrilen master bat egin nuela eta animazio digitala ere sartzen noala, fondoak aldatzen eta abar, teknika gehiago menperatzen nuela ikusten dela esan nahi dut. Gariren lehenengo bideoklipetan ere (“Zure begietan”) aurrerapen hori ikusten da. Niri pertsonalki animazio tradizionala gustatzen zait, paisaia batzuetan 3Da ere nahasten dut eta, bestetik, orain Stop Motion-a ere probatu nahi dut (argazki bidezko animazioa da, argazki errealean bidez egiten dena), eta gustatuko litzaidake panpinen bidezko animazio bat egitea animazio tradizionalarekin nahastuta...

Taldean edo bakarrik egiten duzu lan?

Eguneroko lanean bakarrik aritzen naiz; Internetaren bidez nire zuzendari gogoko-enetaz eta sortzaile berrietaz "enpapatzen" naiz. Zinea, telebista, kalea, jendea, bidaiak eta abar, hori guztia nire inspirazio iturri da, eta horrekin guztiarekin nire sormena martxan jartzen da. Errodaje bat egin behar dugunean, grabazio egun batean adibidez, taldea behar izaten dut. Badauzkat hiruzpalau lagun (batzuetan kuadrilakoak direnak) eta nirekin etortzen dira; nik nire materiala eskaintzen diet grabatzeko eta hori dena egiteko.

AnimaDeba jaialdiaren antolatzailea ere bazara, besteak beste. Halako jaialdiak garrantzitsuak al dira zure ustez?

Baietz uste dut. Ez nuen espero, adibidez, Debako jendeak bertan parte hartuko zuenik, eta aurtengo gortina lehiaketa Joseba Etxeberrriak irabazi du, eta iazkoa Mikel Esparzak; beraz, bi sariak etxean geratu dira! (*kar-kar!*). Ez nuen espero bertako jendea animatuko zenik, eta harriztekoa da alde horretatik. Nik neuk hori nahi nuen, animazioa bultzatzea, existitzen dela erakustea; animazio pelikulak helduentzako ere badaudela erakutsi eta hori bultzatu nahi genuen. Lehenengo urtean Euskal Herriko erretrospektiba izan genuen bezala, gero zabaldu egin genuen, hemen ez baitago hainbeste material erakusteko; umeentzako pila bat, baina helduentzako ez. Horregatik, haurrentzako euskarazko filmak jartzen ahaleginduko ginela erabaki genuen, bertakoak asko daudelako, eta helduentzako, euskarazko eskaintzarik ez dagoenez, ba ahalik eta pelikula interesgarrienak ekartzen saiatzen gara.

Beraz, gustura jaialdiaren ibilbidearekin?

Gortina lehiaketa martxan jarri genuenetik gero eta jende gehiago ari da animatzen parte hartzera, eta oso pozik gaude. Aurten, jaialdia Agirre Jauregira pasa genuen, eta aretoa beteta egon zen egunero, haurrak ezin sartuta... Beraz, pozik gaude eta jaialdia berriz egiteko asmoa dugu.

Zein da animazioaren egoera Euskal Herrian?

Eskasa, diru aldetik oso eskasa. Umeentzako animazioa bultzatzen da, euskal ekoiztetxeek 3Dko animazioan inbertitzen dute, arrakastatsuenak direlako. Helduentzako animazioari eta animazio esperimentalari lekua egin behar zaiola uste dut. Orain Mariscalek eta Truebak atera duten "Chico&Rita" Kubari buruzko film horrekin, adibidez, helduentzako animazioak bultzada bat izango duela espero dut; arrakasta izan du, Oscarretara iritsi da -Espainian ez da sekula halakorik gertatu-, eta ea ba horrekin hemen ere helduentzako animazioa bultzatzen den!

Ez al da behar bezainbeste sustatzen?

Asko arriskatzea da; animazioak kriston lana du, eta asko arriskatzea da gero hortik fruiturik ez ateratzeko, arrakastarik ez izan-

teko. Umeentzako bai, badakite behintzat zerbait aterako dela... laguntzaren batzuk jasotzen dituzte eta beno, nola hala ateratzen dute zerbait. Baina hemen helduentzako animazioa egitea oso zaila ikusten dut nik. Pentsatzen dut ailegatuko dela, eta laster izango dela momentua, baina zaila da. Diru asko behar da, inbertsio asko egin, eta gero etekin gutxi ateratzeko... Begiratu nola dauden pelikula guztiak, Espainian behintzat... zinera orain zein joaten da ba?

Orain musika munduan ere bazabiltza. Gari, Doctor Deseo, Gose, Lain, Kauta edo Split 77 bezalako taldeen bideo klipak egin dituzu... Nolatan hasi zinen esparru horretan?

Ikasketa amaierako proiektuaren harira Serrano Produksioak-ekin harremanetan jarri nintzen; ez nuen espero, baina segituan jaso nuen haien erantzuna. Gari oso gustora zegoela, nire proiektua interesgarria iruditu zitzailela eta nire aurreko lanak ere ("*Jostuna*", adibidez) gustatu zitzaizkiela esan zidaten. Nire telefonoa eman nien, eta hurrengo astean Gari han neukan, Madrilen; motor berria erosi zuen eta hura probatzen etorri zen! Ni flipatzen, noski, Gari nire idoloa zelako, eta gaur egun ere badelako. Buelta asko eman nizkion buruari, norekin jar nintzakeen kontaktuan, nor emango ote zidan aukera... Orduan, Garik "Esperantzara kondena-tuak" disko kaleratu berri zuen eta pentsatu nuen... ba ea zer pasatzen den! Eta haiei idatzi eta halaxe hasi zen dena.

Eta gerora iritsi ziren beste taldeen proposamenak? Bisualak, bideo klipak...

Bai. Garirekin bira oso bat egin nuen eta tartean egin nuen Kautaren bideo klipa ere; Ontza Produksioak-ekoek nire lana ikusi eta deitu egin zidaten. Produktora hartakoa da Doctor Deseo ere, eta haiekin gero hasi nintzen lanean; hasieran pentsatzen nuen bideo klip bat egingo genuela, baina gero bira ere hasi zen: birako irudiak, fondoko irudiak...

Zer darabilzu orain esku artean?

Oraindik Doctor Deseorekin nabil, eta ziur asko uda honetan kontzertu asko izango ditut; kontzertu batzuetara deitzen naute, baina ez naute beti behar, eta proiektzio berriak eraman behar ditudanean deitzen didate batez ere. Bestetik, Garik ere kontzertu solte batzuk ematen ditu eta horiek ere egin behar ditut. Pare bat bideo klip ere badauzkat, gainera, esku artean, baina hori dena airean dago oraindik...

Eta aurrerantzean, zer asmo?

Egia esan, musika eta bideo klipen kontua oso gustuko dut, eta orain bertan mundu horrek ematen dit jaten. Beti gauza bera egiten agian aspertu egiten zara, eta zine mundura ere joan nahiko nuke, laburmetrai bat egin eta horrekin beharbada jauzi txiki bat eman berriz. Baina denbora behar dut, eta benetan merezi duen proiektu on bat, beka edo laguntzaren bat ere bai... Beno, saiatuko gara zerbait egiten!

Izaro Aulestiarte

TXUKU KAMISETAK



Sortzailea da Aitor, eta sortzailea eremu ezberdinetan, gainera. **Txuku kamisetak** ere berak diseinatu ditu. "Beti nahi izan dut nire arropa edo kamiseta marka bat izan, arropa mundua ere gustuko dudalako, tendentzia berriak eta hori dena -azaldu du-. Oraindik ez dut lortu kamisetak eta beste ezer patentatzea, baina nire lagunek nire kamisetak janzea lortu dut behintzat! (*kar-kar!*)". Azken diseinuek izan duten harrerarekin pozarren, eskaerak edonork egin ditzakeela ere aipatu du. Harremanetarako: aitor@onederra.com.

"TXERRITXULETA" BIDEOKLIPA

Azken asteotan herrian ahoz aho ibili da "**Txerritxuleta**" izeneko bideo klipa, eta proiektu hori egiteko ideia ere Aitorri bururatu zitzaion; bururatu eta aurrera eraman, hain juxtu.

Gaszteko Bideo klip lehiaketaren berri izan ostean, kuadrilan bota zuen denon artean bideo klip bat egiteko proposamena. "Beti izan dut kuadrilarekin bideo klip bat egiteko gogoia, eta lagunek ere beti komentatu izan didate ea beraiek noiz azaldu behar diren halako lanetan eta abar", dio irribarrez. Bada, hortik sortu zen proiektua egiteko ideia eta lagunak bertan parte hartzera animatzen hasi ziren -batzuei pixka bat kostatu bazitzairen ere, Aitorrek aitortu duenez-.

Bere kuadrilako eta herriko beste gazte batzuek hartu dute parte lan horretan; Deban eta debarrek egina da, hortaz. "Egun oso bat hartu zigun, estresatuta ere ibili ginen eta kaos pixka bat ere izan genuen... baina ondo pasa genuen benetan", dio Oñederrak. Lehiaketako bost finalisten artean sailkatu da "**Txerritxuleta**", nahiz eta azkenean laugarren postuan gelditu den. Bideoa Interneten duzue ikusgai.

ESKER ONEKO PUBLIKOIA



XXVI. aldiz ospatu da oraintsu Debako Antzerki Astea udalak diruz lagundu eta, urtero lez, herriko GOAZ antzerki taldeak antolatuta nola kudeatuta. Eta aurtengoa ere, bere maila apalean, harrera onekoa izateaz gain kalitatezkoa gertatu izana ez du inork ukatuko.

Antzerkizalea da Debako herria, Debako publikoia, eta hau, ikusle kopuruan bai, baina ikuslearen jokabidean nabari da batik bat. Hunkigarria da, emandaldi batean aktorea abesten hasi eta antzezlearekin batera herria kantuan entzutea. Gozagarria da, aktoreak dantzan aritu bitartean, publikoia txalotan zein oihu animosoetan haien erritmora aritzea. Polita da, tentsio uneetan, ikusle goen arnasek aktoreenekin bat egin eta isilune bakar bat osatzea. Dibertigarria, publiko artean algarak aditzea. Eta zer esanik ez, oholtzagainak zein butakaguneak -frontoiko harmailak-, denak bateratzen diren memento horietan sentitu eta bizitzea. Hori da antzerkiaren altxorrik preziatuena, eta Debak erraz lortzen du hori guztia. Herri antzerkizalea baita Debakoa, herri atsegina bertan antzezteko. Hala sumatu da giroan eta hala kontatu digute bertaraturiko antzerki taldeetako partaideek. Esker oneko publikoia baita debarra.

Aurtengo Antzerki Asteko ikuskizunei so egin eta intereseko programazioa topatu dugu, erruz desberdinak diren estiloez gozatzeko aukera ezin hobea izan baita. Hasteko, herria sorpresaz harrapatu zuen *performance* berritzailea ikusteko abagunea izan genuen, "Stereo". Gorputzaren baliabideak eza-

gutu eta probestuz, neurriak, erritmoak, estetika eta mugimendu ezin landuagoe-kin liluratu zuen publikoia Miren Gaztañaga aktore eta dantzariak. Inor ez zen bertatik sartu bezala irten, eta hizketaldi interesgarriak sortu zituen gerora ere aste osoan zehar emanaldiak.

Hurrengo egunean, Aldatzen Laguntzen taldearen "Ispilua" antzezlanarekin taula gaineko espazioaren erabilera ezberdinak, gizon eta emakumeen arteko harreman unibertsalak, egungo ligatzeko moduak eta joko dibertigarriak ikusi ahal izan genituen.

Aurtengo Antzerki Asteko ikuskizunei so egin eta intereseko programazioa topatu dugu, erruz desberdinak diren estiloez gozatzeko aukera ezin hobea izan baita

Lehen asteburuari amaiera emateko, **Bilboko Goloka antzerki taldea** Debako herria alaitzen ibili zen igande eguerdi partean. Eguraldi ederra lagun zutela, inguratu ziren haurrek, sorgin eta iratxoan inguruan dantzan eta haiekin hizketan aritzeko parada izan zuten. Nabarmenezkoak izan ziren beren jantzi koloretsuak musika magikoaren akelarrean kalean gora eta behera.

Asteazkenean ere gatzetxoek euren txokoa izan zuten Antzerki Astearen baitan eta Aizarnako eskolameek Debako ikasleei euren "Estitxu

Zoriontsu" antzezlanaren aurkezten zieten, herri harremanak landu eta antzerkizale-atasuna txikitandik suspertzeko bideari ekinez. Honez gain, dagoeneko herrian ezagun genituen **Korri, Xaltoa eta Brinko** pailazoek girotu zuten frontoia, haurren txalo eta irri artean, asteazken arratsez.

Azkenik, Euskal Herrian bizirik jarraitzen duten talde amateur antzinakoen erakustaldiak izan genituen: **Orratz antzerki taldea** ostiralean Deban, **GOAZ** larunbatean Itziazarren. Urte luzeetan lanean diharduten eta indarrean dirauten antzerki taldeak dira biak ere. Adin antzetako kideek, gogo zein ilusioak eta umoreak bereizten dituen taldeak, hain zuzen. Zaletasunaren eredu aipagarriak. Ikuslearenganako lotura berezia, sentimendu etxekoia, sustatzen dutenak.

Hauek guztiak ikusi ahal izan dira Debako Antzerki Astearen XXVI. edizio honetan. **Aurrerantzean, XXVII.ari begira jartzekotan gara. Baina aurrez, eskertu ditzagun euren borondatez Antzerki Astea izan dena izan zedin jo eta su aritu direnak, eskertu antzerki taldeetako kide guztiak, eta nola ez, ikuslegoa. Ondo merezitako eskerrak baitituzte, guztiak ere.**

Eta esan, Debak herri antzerkizalea izaten jarrai dezan -GOAZ taldearen iraupena bermatu eta ikuslearen zale-atasuna hazten eta gazteengan indartzen joan dadin-, hunkituz, gozatuz, polit eginenez zein dibertituz, lanean jarraitu behar dugula. Ekinean gogotsu, XXVI urtetako soka, beste hainbestean gutxienez, eten ez dadin.

Idoia Gereñu

GOAZen datuen arabera, 700dik gora ikuslek gozatu dute Antzerki Asteaz (Stereo: 50 ikusle; Ispilua: 60 ikusle; Estitxu zoriontsu: 125; Show berria prestatzen: 280; Kabareta: 85; Kontxesi detektibea: 95 ikusle...).

"Oso pozik gaude ekarri ditugun taldeek izan duten harrerarekin. Horrek aurrera jarraitzeko gogo eta kemena ematen digu, datozen urteetan ere prestaketan gure ahalegintxoak egiteko".

“Plazer bat izan duk, Benito!” liburua aurkeztu dute Mikel Markezek eta Pako Aristik

Iazko Tene Mujika bekan saritutako proiektuaren emaitza Elkar argitaletxearekin kaleratu dute

Pako Aristi idazle, kazetari eta giduigile urrestildarrak eta Mikel Markez Aiako kantariak Benito Lertxundiren “biografia espirituala” jaso dute “Plazer bat izan duk, Benito!” liburuan. Duela sei urte hasitako bazkari-afarietako solasaldien emaitza da maiatzaren 22an Agirre Jauregian aurkeztu zuten lana, eta Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Tene Mujika bekaren bidez gauzatu dute proiektua.

Liburuaren idazleek aurkezpenean azaldu zuten Orioko kantaria aspalditik ezagutzen dutela, eta “pretentsiorik gabe” hasi zirela hilerok-hilerok hiru lagunak elkartzen. Hitzordiak bakoitzaren herrian txandaka egiten zituzten; batzuetan Aian, besteetan Orion, eta gainontzekoetan Urrestillan. Lasai bazkaldu, eta bazkalondo luze haietan honetaz eta hartaz jarduten ziren berriketan. Aristi eta Markez “pribilegiatuak” sentitu ziren, Benito “intimo eta hurbil” bat ezagutzeko aukera izan zutelako, oso jende gutxi bezala, eta pentsatu zuten polita litza-tekeela solasaldi haietan oinarritutako liburu bat egitea.

Bada, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika bekari esker lortu dute hori gauzatzea. Hiruren artean izandako elkarrizketen grabazioetatik abiatu dira egileak hamaika gairen inguruko hausnarketak egiteko. Bertan, musika, noski, baina horrekin batera bizitza eta heriotza, Euskal Herriaren izatea eta munduaren zentzua edo zentzurik eza, politika, indarkeria, arrauna... eta beste kontu ugari bildu dituzte.

Egileek laburbildu bezala, hain juxtu, “Benitoren psikologia, ideologia, pentsamenduaren ibilbidea eta norabidea, funtzionatzeko modua, espiritualtasuna, alderdi emozionala, sentimentalismoa edo eskarazko inongo liburuan aipatu ere egiten ez den sexuaren gaia” landu dute liburuan. Horien guztien bitartez deskubrituko du irakurleak Lertxundi ezberdin bat, “hausnarketaren eta esperientziaren bitartez pentsamendu propio eta berezia landu duena, bizitzaren aurrean jarrera pertsonala hartzen eta koherentziaz jokatzen jakin duena”. Laburbilduz,



kantari ezagunaren atzean dagoen pentsalari original eta sakon bat aurkeztu dute Aristik eta Markezek.

Ainara Gorostizuren liburua, udazken partean

2010eko Tene Mujika beka deialdian aurkeztutako lanen kalitatea aintzat hartuta, saria bitan banatzea erabaki zuten bekako epaimahaikideek (Elixabete Garmendia, Lorea Agirre eta Alberto Barandiaran); Debako Udalak, berriz, proiektuen interesa ikusi eta epaimahaiaren eskaria aintzat hartuz, bikoiztu egin zuten sariaren diru kopurua: 6.000 euro irabazle bakoitzarentzat.

Markezek eta Aristik elkarlanean aurkeztutako proiektua izan zen saridunetako bat eta bekari esker lortutako diruarekin idatzitako liburua kalean dago dagoeneko. Beste egitasmo irabazlea Ainara Gorostizu kazetariaren “EtorkiZUnak” izan zen, immigrazioaren errealitatea etorkinen ikuspegitik kontatu nahi duena. Bigarren liburu horrek ez du oraindik argia ikusi eta, aurreikuspenen arabera, udazken partean argitaratuko da.

Goazen Plazara ekimen arrakastatsua



Euskal preso eta iheslari politikoak etxeratzea ahalbidetu nahi duen Herrira mugimenduak deituta, Goazen Plazara ekimen jendetsua egin zen Foruen plazan, maiatzaren 19an. Euskal Herriko beste hainbat plazatan moduan, Deban ere ekintza ezberdinak egin ziren: bertsoak, dultzaineroak, txalaparta, antzerkia, erromeria... Eguraldi petrala egon arren, jende ugari bildu zen presoekin aplikatzen zaizkien salbuespeneko neurriak indargabetu ditzatela eskatzeko -dispertsioa, bizi arteko kartzela zigorra ezartzeko neurriak, gaixo direnak preso mantentzea, isolamendua eta bakartzea...-. **Herrirak eskerrak eman nahi dizkie ekimenarekin bat egin zuten guztiei eta, bide batez, ostiralero 19:30ean plazan egiten den mobilizazioan parte hartzeko deia ere egin du.**

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Polentzi Markiegi fusilatu zuteneko 75. urteurrena betetzen da aurten

Santoñako Barriako hondartzan, 1937ko urriaren 15ean hamalau lagun fusilatu zituzten faxistek:

Jesus Zabala Iriondo STV
 Jose Ibarbia Unzueta STV
 Isidro Nieves Sagasti CNT
 Crispulo San Miguel Cubero UGT
 Ramon Azkue Gorostiaga EAJ
 Polentzi Markiegi Olazabal EAJ
 Felipe Markaidea Maurika EAJ
 Felipe Tomas Lopez de Otamendi EAJ
 Federico Sanchez Martin UGT
 Ziriako Sanz Casamayor Errepublikanoa
 Manuel Natividad Lopez PSE
 Francisco Rabaneda Postigo PCE
 Martin Subtil Sanz PCE
 Martin Ramos de la Viuda CNT



Guztiei leporaturikoa gauza berbera izan zen: altxamenduari aurre egitea. Bakoitzak bere erara eta guztiek bat eginda, Bigarren Errepublika eta Euskal Lurraldeak babestu zituzten, eta arerioak ez zien izandako jokabide tinkoa barkatu. Gure herriko alkatea zegoen tartean, lekuko esanetan, azken unera arte erakutsitako amore eta lasaitasunak inguruko guztiengan izan zuen eragina aipatzekoa izan omen zen. Hogeita hemeretzi urte zituen arren, gazte gaztetatik aritu zen Euskal Herriaren alde lanean. Bere bizitza osoa bi zutabetan eraikia dela esango genuke: Aherria eta Kristautasuna. Azken taupadaraino izan zen abertzale eta fededun.

Bere fusilamenduaren 75. urteurrena betetzen da aurten eta iruditzen zait herriak gizon honekin duen zorra nolabait kita-

tzeko garaia iritsi dela. Deba eta Itziarren badira oraindik Markiegiren lanaren berri ematen diguten hainbat azpiegitura eta eraikin. Itziartik Lasturrerainoko errepidearen bultzatzaile nagusietako bat izan zen. Deban "ensantxean" egindako antolamendua eta bertan eraikitako bi txalet zor dizkiogu, sasoi hartako herriko langabetuek altxatutakoak. Lasturreko kanaletik ur hornidura hobetzeko hainbat saio. Gerraren etorrierak zapuztu zituen hainbat ekimenen bultzatzaile ere, bera izan genuen: Herri mailan portua eta eskoilera gauzatzeko baimen eta diruak lortu zituen Madrilera egindako joan-etorrietan. Gipuzkoa mailan, herrian 1933an izandako uholde izugarriak ikusirik, horrelako ezusteei aurre egiteko kutxa komun baten sorreran aritu zen. Aipatutakoek gain, Euskal Herriaren alde egindako lanak aitortu behar zaizkio: Lizarrako Estatutua bultzatu zuen Alderdi jeltzalearen barruan. Fede kontuetan, jesuitekin izandako loturak, eta herriko erlijio- irakaskuntzaren sorreran egindako ekimenak daude.

Urteurren hau aitzakia ederra da bere izena eta izana zabaldu eta ezagutarazteko. Guztion artean eratu dezakegu **HERRI EKIMEN BAT**. Horretarako lan egiteko prest egonez gero, bilera ireki bat egitera goaz, guztioi zuzendua, bai erakunde, alderdi politiko edo sindikatu bai pertsona orori. Bilera ekainaren 25ean (astelehena) izango da, Zuhatza elkartearen lokalean (19:00etan).

Urteurren hau aitzakia ederra da bere izena eta izana zabaldu eta ezagutarazteko. Guztion artean eratu dezakegu **HERRI EKIMEN BAT**. Horretarako lan egiteko prest egonez gero, bilera ireki bat egitera goaz, guztioi zuzendua, bai erakunde, alderdi politiko edo sindikatu bai pertsona orori. Bilera ekainaren 25ean (astelehena) izango da, Zuhatza elkartearen lokalean (19:00etan).

Xabier Laka

UDAKO IKASTAROAK 2012 www.udaleuskaltegiak.net

MATRIKULA ZABALIK MATRÍCULA ABIERTA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

CURSOS INTENSIVOS DE VERANO

2. DEIALDIA PRESTATZEKO IKASTAROA

3. maila eta EGA
Uztaila - Iraila

Uztailaren 2tik 27ra (3 ordu egunean)
Irailaren 10etik 21era (2 ordu egunean)

Prezioa: 115 euro.
Ikasle eta langabetuentzako prezioa : 73 euro.
Bekatze-sistema.

Matrikulaldia: Ekainaren 28a arte.

UDAL EUSKALTEGIAK

EUSKALTEGIS MUNICIPALES
EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

lfar-kalea, 12
20820 DEBA
943.19.22.36
E-posta: debabe.deba@telefonica.net

UDAL EUSKALTEGIAK

EUSKALTEGIS MUNICIPALES
EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

BERRIKETAN GAZTEA

2012ko ekaina
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.

TAPOI BILKETA



Aurten ere tapoi bilketa martxan jarri da. Pertsona batek baino gehiagok, zoritxarrez, tapoiak behar ditu bere gaixotasunari aurre egin ahal izateko, eta bere bizi-baldintzak hobetzeko. Helburu horrekin hainbat herritan jendearen parte-hartzea eskatzen da, eta Mendata institutuan ere horretan gabiltza.

Bilketa honetan laguntzeko, institutuan 11-12 kilogramo tapoi bildu ditugu. Tona baten-gatik 200 euro ematen dizkiete AITZINA elkarte-koei laguntza eskaintzeko; beraz, jende askoren partaidetza oso beharrezkoa da. Tapoiengatik lortutako dirua beharra duten familien artean banatzen da. Hemen jasotako tapoiak, institutukoak, Elgoibarko denda batera eramaten dira eta hango erakundeak beharra duten familien artean banatzen du lortutako dirua.

Institutuan tapoi bilketaren ardura hartu duen irakasleak, Arratek, zera esan digu: "Ez dakigu tapoiak ikasleek ekartzen ote dituzten, guk ez dugu begiratzen norik botatzen dituen; hala ere, pentsatu nahi dut bai botatzen dituztela, nik ikusi ditudan guztiak irakasleak izan badira ere. Baina, ikasleek hemen ez botatzeak ez du esan nahi ez dutenik laguntzen, herrieta-ko denda edo taberna batzuetan ere jasotzen baitituzte tapoiak, eta laguntzen duten bitartean, berdin du han edo hemen bildu dituzten. Gainera, ez dugu laguntzeko bakarrik egiten, bide batez birziklatu ere egiten dugu-eta."

Beraz, anima zaitzte tapoi bilketara! Nolako tapoiak izan behar dute? Plastikozkoak diren bitartean, berdin du tamainak eta beste guztiak!



ELKARRIZKETA

Oraingo honetan, Plastikako irakasle Dani Astarloa aukeratu dugu. Danik 38 urte ditu, Eibarren bizi da, eta bere lehen urtea da ikastetxe honetan. Horregatik elkarrizketatu dugu atal honetan:

“Oso gustura nago, eta datorren urtean ere hemen egotea espero dut”



Zer izan nahi zenuen txikitari? Zergatik?

Athleticeko jokalaria izan nahi nuen, gehienek bezala. Futboleko jokatzen nuen Eibarko talde batean eta, garai hartan, gauzarik garrantzitsuena zen laguntzako.

Nolatan iritsi zara Plastikako irakasle izatera?

Iruñean, Nekazal-Ingeniaritza teknika ikasi nuen; bukatu eta berehala, klaseak emateko deitu ninduten. Hala, Marrazketako irakasle bihurtu nintzen, eta orain Plastika ematen dut. Txikitatik gustatu izan zait: Marrazketa ikasten nuen, eta orain lehen baino gehiago gozatzen dut.

Zer ikusten duzu plastika arlotik erakargarrien?

Gizabanakoaren sormena lantzeko aproposa dela, eta, nola ez, adierazkortasuna transmititzeko ere bai.

Artisautza ere irakasten duzu. Zer desberdintatu

duzu artisautza eta plastikaren artean?

Artisautzari eskulanak dagozkio, eta Plastika marrazketan eta margotzean zentratua dago. Bata hiru dimentsiotan, eta bestea bitan.

Zein duzu nahiago?

Gehiago gozatzen dut plastikarekin, txikitatik presente izan dudalako agian.

Gustura zaude ikastetxe honetan? Eta bertako ikasleekin?

Oso gustura nago, eta espero dut datorren urtean ere hemen egotea. Ikasleei dagokienez, ikastetxe guztietan bezala, denetik dago; orokorrean, esan dezaket alderdi horretan ere Mendata ikastetxe ona dela.

Gustatuko litzaizuke ikastetxe honetan jarraitzea?

Bai, noski!!



INKESTA

Eskolaz kanpoko ekintzak

Oraingo honetan, ikasleei eskolaz kanpo egiten dituzten ekintzen inguruan galdetu diegu. Hona hemen erantzunak:

- 1.- Eskolaz kanpoko zer ekintza egiten duzu?
- 2.- Zenbat ordu ematen dituzu astean ekintza horiek egiten?
- 3.- Estresa sortzen al dizu ikasketekin bateratzeak? Nola lortzen duzu gainditzea?
- 4.- Zein duzu gustukoena? Zergatik?
- 5.- Hurrengo urtean ikasketek denbora gehiago eskatuko balizute, ekintzaren bat kenduko al zenuke?
- 6.- Zure borondatez aukeratu dituzu, gustuko dituzulako, edo gurasoek eta ikasketek eraman zaituzte horiek aukeratzera?



Maite Aldabaldetrekua:

- 1.- Ingeles partikularra.
- 2.- Bi ordu hartzen dizkit astero.
- 3.- Ez, ez dit estresik sortzen.
- 4.- Ez dut ingelesa ez den beste aukerarik, baina nahiko ondo dago.
- 5.- Jarraitzea pentsatzen dut, ikasketetan laguntzen didalako.
- 6.- Gurasoek esanda hasi nintzen partikularrean.



Unai Matias:

- 1.- Eskubaloia, perkusioa, solfeoa, korala, ingeles partikularra eta txistua bandan.
- 2.- Hamar ordu astero.
- 3.- Bai, estresatuta bizi naiz. Gurasoen laguntzaz.
- 4.- Eskubaloia. Kirola delako eta ez delako ikasi behar.
- 5.- Agian solfeoa lagatzea pentsatu dut; ondorioz, korala eta instrumentua ere bai.
- 6.- Nire borondatez aukeratu ditut.



Unai Sanz:

- 1.- Atletismoa eta partikularrak.
- 2.- Hamar ordu inguru.
- 3.- Batzuetan estresatzen naiz, ez dakit nola moldatzen naizen ere.
- 4.- Atletismoa. Kirola egitea gustuko dudalako.
- 5.- Ez dut ezer uzteko asmorik.
- 6.- Partikularra gurasoengatik egiten dut; atletismoa, borondatez.



Ane Masach:

- 1.- Futbola, Euskal Dantza, aerobika eta pintura.
- 2.- Zazpi ordu ematen ditut.
- 3.- Batzuetan bai, estresatzen naiz, eta halakoetan ez naiz joaten.
- 4.- Futbola, atsegin dudalako eta lagunekin ongi pasatzen dudalako.
- 5.- Oraingo ez.
- 6.- Nire borondatez aukeratu ditut.



Jon Zabala:

- 1.- Futbola eta ingeles partikularra.
- 2.- Zazpi ordu inguru.
- 3.- Bai zera! Ez naiz estresatzen.
- 4.- Futbola, dibertigarria iruditzen zaidalako.
- 5.- Ikasketengatik ez behintzat.
- 6.- Partikularrak gurasoengatik egiten ditut; futbola, borondatez.



Markel Aznal:

- 1.- Futbola eta ingeles partikularra.
- 2.- Hamar bat ordu.
- 3.- Ez, denbora eduki edo ez, berdin ikasten dut.
- 4.- Futbola, asko gustatzen zaidalako.
- 5.- Ez, ez dut ezer uzteko asmorik.
- 6.- Futbola borondatez. Partikularra, berriz, ikasketengatik hasieran, baina orain nire borondatez.



Maria Zubia:

- 1.- Futbola, balleta, ingelesa eta aerobika.
- 2.- Hamaika ordu eta erdi.
- 3.- Ez, ondo daramat, dena ondo antolatzen saiatzen naiz.
- 4.- Balleta, gustuko dudalako.
- 5.- Bai, futbola lagatzekotan nabil.
- 6.- Nire borondatez joaten naiz.



Joseba Urkiri:

- 1.- Judoa, ingelesa eta solfeoa.
- 2.- Zazpi ordu hartzen dizkit astean.
- 3.- Estresa? Batzuetan bai, eta beharrezkoa bada ez naiz horietara joaten.
- 4.- Judoa. Interesgarria iruditzen zaidalako.
- 5.- Ez, ez dut ezer utziko.
- 6.- Nire borondatez egiten ditut.

EGILEAK: AINHOD AZKARATE ETA ALAITZ ESCUDERO

Herri musikaren txokora



Maiatzaren 2an, 2.DBHko ikasleak Oiartzunera joan ziren, Herri Musikaren Txokora. Museo honen helburuetako bat, batetik, herri musika eta herri soinu-tresnak ezagutzeko, ikerketa eta topagunerako dokumentazio zentro bat sortzea da; eta bestetik, Euskal Herriko kultura eta bereziki herri musika era didaktiko, ulergarri eta entretenigarrian mota guztietako hartzailen eskura jartzea. Eta azkenik, ikastetxeetako eta musika eskoletako ikasleei musika klase teoriko, praktiko eta aktiboak eskaintzea beraien musika ikasketen osagarri. Musikari buruzko hainbat informazio ematen dute, batez ere musika tresnei buruzkoa (lehen nola eta zertarako erabiltzen ziren...). Gustura ibili ziren hango tresna bitxiak ikusten, batez ere musika gogoko dutenak.

DenBora-pasaak

TXISTEAK

Gazte bat etxera doa, eta zera esaten dio aitari:

- Aita, aita! Bi berri dauzkat zuretzat, bata ona eta bestea txarra.
- Beno, ona esaidazu.
- Drogak utzi ditudala.
- Ederki! Bazen garaia, bazen garaia! Eta txarra?
- Ez dakidala non utzi ditudan.

Aita Santuaren meza

Hiru urteko ume baten ateraldia. Aitarekin meza entzuten ari zen. Meza ematen Aita Santua, Erroman. Ardoa bedeinkatzeko kaliza altxatzen du, eta semeak: "Aitatxo, gizon horrek zergatik irabazi du kopa?".



POTOKUMEAK

Hutsuneak bete itzazu ondoko hitzak erabiliz:
esperantza/gaitza/txantxa/konfiantza/altxa/kantxa

Dirua hartu eta
ahaztu dezu _____
horrela nola kristo
porturik _____
dirua jokatzea
ez den arren _____
jokatzen ari zera
nere _____

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRETSA TALDEA 2011-2012

Nerea Agirregabiria	Ane Baroja
Leire Alberdi	Alaitz Escudero
Sara Anton	Ena Esmoris
Ainhoa Azkarate	

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

Yolanda Arrieta, idazketa sortzailearen inguruko trikimailuak Luzaroko ikasleekin partekatzen



Debako OSTOLAZA udal liburutegian aritu naiz, astebetez, Luzaro ikastetxeko lagarren mailako ikasleekin.

Duela sei urte hots egin zidaten lehenengoz eta, harrez gero, urtero etorzen naiz, maiatzaren bigarren edo hirugarren astean, Debako neska-mutil gazteekin idazketa sortzailearen inguruko trikimailuak partekatuz.

Idazketa sortzaileak guztiok barruan dugun ahots gordearekin konektatzen laguntzen digu eta, idazketa taillerak, berriz, bakoitzaren NI-tik datorren ahots propio hori besteekin konpartitu eta GU komun bat eraikitzen.

Hala bada, beroketa jokoak egiten ditugu, eskua askatu, luma berotu eta irudimena martxan jartzeko. Sortzen diren idatziak ozenki irakurtzen dira, sormen prozesuaren alde pertsonal eta origi-

nala aldarrikatzeko.

Helburuen artean honako hauek daude: idazketaren alde sortzailea lantzeko baliabideak erakustea era praktikotzatuz, idazteak sortarazten duen izuari aurre egiten ikastea joko dinamikoen bidez, sormen prozesuaren aurrean sortzen den blokeoari aurre egiteko bideak ezagutaraztea era atseginez eta euskaraz idazteari gustua hartzeko bideak eskaintzea, bakarkako lana eta talde dinamika uztartuz.

Niretzat sormen bidea bera da garrantzitsuena, hau da, zentzuetatik datorkizun informazioari adi bizitzea, aurrean dugunari adi egotea eta emozioak bereizten ikastea, unea bizitzen ikasiz gero beti izango dugulako zer kontatua.

Honenbestez, bada, idatziz kontuak sortzeko bost giltzak ezagutzen saia-

tzen gara, praktikatik teoriara salto eginez. Irudimena nola elikatu ikusten dugu eta sortzeko makina olioztaturik mantentzeko entrenatzen gara.

Konturatuko zaretenez, azti onenen antzera, trikimailu asko frogatzen dugu. Baina, azti onenen antzera, ez dugu horien berri zuzena emango, trikimailuak agerian utziz gero, magiarik ez dagoelako.

Beraz, lagin bat nahi duenak liburutegiko hormetan aurkituko du hainbat hazi. Ez begiratu hainbeste okerreko "h", "s" edo "z"-ri. Gogoan izan, obrarik garrantzitsuenak ere zirriborro batetik hasi zirela, behin edo behin, norbait beste norbaiti zerbait kontatzen hasi zenean, bihotza bero eta zentzuak esna.

Mila esker zuen arretarengatik,
Yolanda Arrieta



Debako Surf Eskolak eskaintza zabala dakar aurten



Honezkero ikusiko zenuten bezala, hondartzan etxola moduko bat zabaldu berri du Debako Surf Eskolak. Baina ez da hori aurtengo berrikuntza bakarra. Izan ere, ikastaro eskaintza zabalarekin egin baitio ongiatorria uda garaiari.

Batetik, **hastapeneko surf ikastaroak** eskaintzen ditu astean zehar, zein asteburuetan, eta ikasle bakoitzaren behar eta mailaren arabera egokitutako ordubeteko kurtso partikularrak ere ematen ditu.

Bestetik, **SUP stand up paddle** modalitate berrian –taularen gainean zutik jarrita arraun batekin praktikatzan den horretan–, lehen urratsak emateko aukera ere badago aurten. Eskolako kideen esanetan, surfean aritzea baino errazagoa omen da SUP-ean trebatzea. Ikastaroak adin orotako jendeak har ditzake, ez baitu sasoi fisiko bereziki onean egotea eskatzen. Beraz, Deba ibaiaren inguruak lasai ezagutzeko kirol jarduera interesgarria izan litekeela azaldu dute.

Surf Eskolan **materiala alokatze-ko** aukerarik ere bada, gainera. Surfean aritzeko taulak, SUP-ekoak eta neoprenoak aloka daitezke –orduka edo bonoak aterata–.

Ekainean abiatu dira ikastaroak, eta irailaren 30a arte egongo dira abian. Horretarako, surfaren irakaskuntzan esperientzia duten bost monitore ditu Surf Eskolak, gehienak ere Deba ingurukoak, eta klaseak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ere eskaintzen dituzte.

Ikastaro pertsonalez gain, taldekakoak ere eska daitezkeela azaldu dute arduradunek. Talde handien kasuan, gainera, malgutasunez adostu daitezke ordu-tegi zein prezio bereziak.

Aisialdian ondo pasatzeko aukera eskaintzeaz gain, finean didaktikoak dira kurtsoak (laupabost eguneko programazioa dute). Ikasketa teknikoaz eta txangoz gain, itsasoarekiko eta uretan elkartuko direnekiko errespetuan hezteka dute helburu, eta ingurune naturalaren zein olatuen inguruko informazioa eta abar ere ematen zaie ikasleei.

Hori guztia kontuan hartuta, beraz, animatzeko eta ikastaroetan parte hartzeko deia egin nahi du Surf Eskolak, herritarrei uda honetan olatuen gainean disfrutatzeke gonbitea eginez. Informazio gehiago: 628 52 96 95 telefonoan edo Surf Eskolatik bertatik pasata.

San Migeleko Jabier Osorok irabazi du Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa

Amaitu da Gipuzkoako XLIII. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa. Jabier Osorok 22 txirlo jo ditu lehiaketako hamar jaurtialdietan, eta berak jantzi du aurtengo txapela. Bigarren postuan Eibarko Asola-Berriko Sergio Rodriguezen ordezkaria gelditu da, eta hirugarren Gorka Etxaniz (Florea).

Emakumezkoetan Olaitz Rodriguez eibartarra izan da garaila, eta taldeka Asola-Berri A nagusitu da, 83 txirlorekin. Ana Mendezek (Florea) irabazi du infantiletan, Erik Muñozek (Florea) jubeniletan, eta Ricardo Albizuri elgetarrak beteranoetan. Bestetik, Lasturko taldeko bolari txapelduna Gotzon Uranga izan da.



Udaberriko Luzaroko txapelketak

2011-2012 ikasturteko azken txapelketak burutu dira udaberriarekin batera arrakasta handiarekin, bai parte hartzaile kopuruari dagokionez, baita kirol lehiaren erakutsitako ikuskizunari begira ere.

Oraingoan ping-pong-ean benjaminak aritu dira, hau da, 4. eta 5. mailako ikasleak, guztira 49 neska eta 54 mutil. Bi taldetan banatuta, hauek geratu dira kanporaketen ondorioz txapeldun:

Neskak: Naroa Laka, Naroa Etxeberria, Malen Arakistain eta Mireia Lili.

Mutilak: Alejandro Ruiz, Kaiet Altzibar, Josu Salegi eta Xabi Iribar.

Esku pilota arloan alebinez jardun dute, hau da 5. eta 6. mailakoek. Oro har, txapelketa bikaina izan da, baina batez ere final laurdenetatik aurrera partida ikusgarriak izan dira, pilotarien mailarengatik eta ikusleek euren animo eta txaloekin jarritako giroagatik.



Aurten hauek izan dira irabazleak:
Neskak: Paula Arregi, Ane Agirrezabala, Maialen Izeta eta Ane Amutxastegi.
Mutilak: Beñat Escudero, Ibai Salegi, Roke Etxeberria eta Gorka Masach.

Amaitzeko aipatu nahi genuke,



umek erakutsitako kiroltasuna, bai epaileekiko errespetuagatik, bai irabazi ala galdu lehiakideek azaldutako kidetasunagatik. Orain uda osoa hor dago jokatu, ikasi eta ondo pasatzeko.

Luzaro Eskolako Kirol arduradunak

Ekainaren 23an San Juan bezpera ospatuko da

Ba al dakizu San Juan Sua zer den? Hona hemen zenbait jakingarri:

-Ekainean egiten da: EKlAk (hau da, eguzkiak) GAINA hartzen duen garaian. Gaur egun 23an egiten den arren, lehen hilaren 21ean egiten zen, egunik luzeena eta gaurik laburrena delako. Udako solstizioan sartu garela, uda iritsi zaigula ospatzen dugu. Hemendik aurrera egunak berriro laburtzen eta gauak luzatzen hasiko dira eguberriak arte. Udako festa bat da beraz eta sua eta ura dira hura ospatzeko bi elementu nagusienak (San Juan izena kristautasuna hedatu ondorengo da).

-Suak eguzkia irudikatzen du, hark bezalaxe, argia eta berotasuna ematen dizkigulako. Eguzkia funtsezkoa da bai bizitzeko, bai bizitzarako. Antzina, elektrizitaterik ez zen garaian, eguzkiak argitzen zuen bitartean egiten zen bizimodua: bai lana, baita bizitza soziala ere. Gaua, berriz, erretiratzeko ordua izaten zen, izaki beldurgarrien garaia. Hala dio euskal esaera zahar batek: "eguna egunekoentzat, gaua gauekoentzat".

-Suak propietate purifikatzaileak ditu. Suaren gainean jauzi eginez gero, gaixotasunetatik eta izpiritu txarrendantik libratuko zaitu. Horrexegatik, zenbait herritan bezalaxe, su handiaren ondoan su txiki bat daukazu. Ausartu eta egizu jauzi. 3 jauzi egin behar dituzu gutxienez, eta gehiagotan nahi izanez gero bakoitiak izatea komeni: 5, 7, 9, ... salto.

-Su hondarrak etxera eraman ditzakezu, etxean su berria egiteko. Uzta babesteko ere erabil dezakezu.

-San Juan egunean eguzkia saltoka ateratzen omen da.

Ikusi nahi baduzu, goiz jaiki behar-ko duzu.

-Indarberritzeko edan ezazu ura beldurrik gabe, San Juan goizeko urak dohain magikoak ditu eta. Mendietako edo herriko iturrietatik egiten baduzu, ondo baino hobeto gainera. Egunsentian, eguzkia atera baino lehen, belar ihintzetan oinutsik ibiltzea baino gauza hoberik ez da. Plazer handia sentituko duzu, seguru. Berdin biluzik bainua hartzen baduzu. Herrian, gainera, aukera paregabea daukazu: ibai eta errekez gain, itsasoa esku-eskura.

-Tximisten beldur bazara, apaindu ezazu etxea elorri zuri eta lizar adarrekin; garai batean oso zabaldua zegoen ohitura hori Euskal Herrian. Baratzerik baldin badaukazu, berriz, lur-sailean ipini, uzta babestuko dizu eta.

-Herriren batean diotenez, gauerdian harriak ogi eta ura ardo bihurtzen omen dira. Gaua janariz eta edariz ase pasatzeko modua hortxe daukazu bada. Baina, kontuz, une aproposa harrapatzen ez baduzu, gizotso bihurtuko zara!

Hona hemen, beraz, aukeraz betetako gaua, ez ezazu alferrik galdu eta gozatu! IKIMILIKILIKLIK!

Amaia Zinkunegi



Burdin Gurutzekin Baztango paraje ederretan



Burdin Gurutzek, urtero bezala, maiatzean antolatutako umeekin aste buruko irteera Baztango mendietara. Hauek izan ziren ibilbideak:

Maiatzak 26: Atsondo gaina (602 m), Alkurutz (934 m), Atxuela (754 m), Bagatxeta (790 m), Beltzuri (667 m) eta Lekarotz herria (239 m); bertan aterpe ederra genuen, 6 orduko ibilbidea egin ondoren merezitako afaria eta atsedena hartzeko instalazio ezin hobekoekin.

Maiatzak 27: ondo gosaldutako ondoren (eta agujetekin) hasi genuen bigarren ibilbidea Elizondoko Beartzun auzotik; Belaungo lepoa (760 m), Argibel, Harrikilikan, Albako herria (1074 m), Urbiloko lepoa, Ixkiko lepoa eta Beartzun. Denak ikusgarriak, Nafarroa eta Iparraldeko mugetan ibili baikin.

Juanma Oiartzabal

DEBATIK LOURDESERA PEREGRINAZIOAN

Ekainaren 2an, urtero bezala, autobus bat irten zen Lourdes aldera. Ilusio handiz irten ginen goizeko seiatarako, heldu, gazte eta umeak, European dagoen peregrinazio leku handienetako batera. Lourdes, 6.000 biztanle dituen Pirinioetako herrixka txiki bat da baina, urtero, 6 milioi bisitari izaten dituena. 1858. urtean Ama Birjina agertu zitzaion Bernadetteri eta, ordutik, mundu osoetik etortzen diren erromesen bilgune da.

Espiritualtasun eta sinesmenaren

inguruan, elementu desberdinak topa ditzakegu Lourdesen: lehenengo elementua ura da, natura eta bizitza gogoratuko dizkiguna; bigarrena kandelen sua, argia eta barruko oroimenak piztuko dizkiguna; Grutako harria, hirugarrena, elementu sendoa eta iraunkorra, sinesmenak bezalako. Eta elementu horien artean, azkena, jendea; mundu guztiko gizon-emakumeak joan-etorrian, milaka lagun, gaixo, laguntzaile eta bisitari; herrialde desberdinetakoak, multirraziala. Orogen gaine-



tik, tartetik edota azpitik, ordea, sentipen bat aipatuko nuke: Lourdesen bakea eta lasaitasuna arnasten dira.

Juanma Oiartzabal



Agenda

Ekainak 23, larunbata

-22:00. **San Juan bezperako sua**, plaza berrian.

Ekainak 26, asteartea

-22:00. **San Pedro bezpera**. Zahagi erretzea, plaza zaharreen.

Ekainak 29, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa, Herrira mugimenduak deituta. Foruen plazan.

Ekainak 30, larunbata

-**Elektrotxarangarekin irteera, Gasteizera**. Egun osoko irteera: poteoa, bazkaria eta iluntzeko 20:00etan Elektrotxaranga kalez kale. Autobusa eta bazkaria, 20 euroren truke.

Uztailak 1, igandea

-**Debabarreneko IV. BTT Martxa**. Informazioa eta izen-ematea: www.debabarrenaturismoa.com edo 943 820 110.

Uztailak 3, asteartea

-19:00. **Udara Kulturaz Blai**. "Txoko hegalaria tontolo" haurrentzako ikuskizuna, Animagic taldearen eskutik. Hitzordua Zuhatzak antolatzen du, eta Zumardian izango da.

Uztailak 7, larunbata

-**Merkatu txikia**, estalitako pasealekuan.

Uztailak 10, asteartea

-19:00. **Udara Kulturaz Blai**. "Tina" haurrentzako ikuskizuna, Zirkun Zirkoren eskutik. Hitzordua Zuhatzak antolatzen du, eta Zumardian izango da.

Uztailak 14, larunbata

-11:00. **IV. Andutz Igoera**.

Uztailak 17, asteartea

-19:00. **Udara Kulturaz Blai**. "Disco Txiki" haurrentzako ikuskizuna, Begira taldearen eskutik. Hitzordua Zuhatzak antolatzen du, eta Zumardian izango da.

Kirol eskaintza

-**Amaiak Batek antolatutako futbol ikastaroak, uztailean** (hiru egun astean). Izen-ematea: ekainaren 25a arte (50 euroren truke), Debako Turismo Bulegoan (943 19 24 52 telefono zenbakia).

-**Udako kirol ikastaroak, Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta**. Piraguismoa, surfa, esku pilota eta paleta, body board, xakea... Izen-ematea eta informazioa: Debako Turismo Bulegoan.

Ikastaroak

-**UEUK 40. Udako ikastaroak antolatu ditu**. Eibarko Markeskua jauregian, adibidez, hogei bat kurtso eskainiko dira, ekainaren 26tik uztailearen 13ra bitartean. Informazioa: www.ueu.org atarian.

-**Debako Arte Eskola**. Zabalik dago Debako Eskulangintzarako Irakaskuntza Zentroan datorren ikasturtean matrikulatzeko epea. Informazioa: www.debarte.net atarian edo 943 19 18 04 telefonon.

Hitzordu bereziak

-**Debanatura Ingurumen Heziketa Elkarteak** Tarin-Udatxokoak udaleku irekiak eta Multiabentura udalekuak antolatu ditu. Informazio gehiago: 943 19 11 72 telefonon edo debanatura@hotmail.com helbide elektronikoren bitartez.

-**Euskal Kostaldeko Geoparkea** bisita gidatu ezberdinak eskaintzen ari da. Besteak beste, Debako Aixa kobara espeleologia txangoa egiteko aukera eskainiko du. Informazio gehiago: www.geoparkea.com edo Debako Turismo Bulegoa.

Lehiaketa

-**San Rokeak 2012 Kartel Lehiaketa**: Jai Batzordeak herriko jaietarako kartel lehiaketa antolatu du. "Abuztuak 14tik 19ra. 2012 San Roke Jaiak Deba"

izenburua eraman beharko dute lanek. Uztailearen 1etik 10era bitartekoa izango da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiago: 943 19 28 40.

Ordutegi berezia liburategian

-Ekainaren 25etik aurrera, Ostolaza Udal Liburutegiak **udako ordutegia** izango du. *Liburutegi orokorra: astelehe-

netik ostirala bitarte, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: TEL. 669 262 201

BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikun.

Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30



OHARRA:

Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera
Deba, Mendaro, Mutriku eta Soroluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurtan. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA


"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

multiópticas uzuri

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



**multiópticas
Uzuri**

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gas
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

**A
D**

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

Hondartza, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPUZKOA)

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
ase.deba@teletelino.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAI RUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

**Lizaso
Autozerbitzua**

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 618 644 014
20820 DEBA (GIPUZKOA)

**ALBIZU
HARATEGIA**

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA
TABERNA**

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

ITZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA
Arraindegia**

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI
TABERNA**

Sokagiu. 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

**Informatika
Trenaria
informatika**

**Elektronika
Osagai
elektronikak**

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA


Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

e-mail: jc@informatika@elektronika.e.telefonica.net

**RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

ZERGATIK GAIZKI egiten jarraitu



Nahastutako bilketa = Kutsadura
=Zabortezia/Errauste planta

ONGI egin badezakegu?



Gaikako bilketa = Birziklatzea

Osasunagatik

Ingurugiroak
kezkutzen gaituelako

Ongizate arrazoiengatik

Seme-alabengatik

Arrazoi ekonomikoengatik

ondo
egitera
goazz



Debako Udala